

EUSKO JAURLARITZAko

2014ko AURREKONTU PROIEKTUA

(STEE-EILASen balorazioa)

- 2014 aurrekontuen proiektuak 10.215 milioiko gastua kontenplatzen du. 2012ko -onartu zen azken proiektua- aurrekontuekin alderatuta %2,2ko jaitsiera dago gastuan. Aldi berean, 2013an baino 899 m. gehiago (9,6ko hazkundera) gastatuko direla diote. Baina zorraren amortizazioaren igoera kenduta benetako hazkundera %6,2koa da (561 milioi gehiago).
- Esan dute 899 milioi horietatik 464 PSE eta PPrekin PNVEk bultzatu duen erreforma fiskalaren bidez eskuratu direla. Oso emaitza eskasa, lortutakoaren 3/4ak zorraren amortizazioaren igoerarako (433 milioitik, 792ra, iaz baino %82,9 gehiago) bideratuko direlako. Diru-bilketari eta iruzur fiskalari buelta bat eman gabe oso zaila izango da aurrekontuak beharretara hurbiltzea. Beste 435 milioi defizit publikoaren helburua malgutzearen ondorioz etorriko omen dira: 2013rako hasieran eskatzen zen %0,7tik %1,2ra pasa da Estatuarekin negoziatu eta gero (eta Europar Batasunak baimenduta). 2014rako %0,2tik %1era.
- Jaurlaritzak 2014rako proposatzen duen gastu maila ez da 2009an zuenera iristen, 279 milioi gutxiago duelako. Abiadura Handiko Trenaren gastuak kontutan hartzen badugu 390 milioi gutxiago egongo dira 2014an 2009an baino. Zergaren ordainketarekin, 709 m gutxiago egongo dira. Inflazioa kontutan izanda (%10,6) 1086 milioi gutxiago egongo dira gastatzeko datorren urtean duela bost urte baino. Beraz, krisi aurreko mailetara iristeko Jaurlaritzaren proiektuak 2.487 milioi € gehiago beharko luke eta 12.974,4 kopurura iritsi, orain duena baino %23,7 gehiago. Galdutako gastu kopurua krisialdian zehar BPGak izan duen galera baino altuagoa da. Eta esan behar da LANBIDEra transferitu ziren enplegu politiken kostua ere ez dela kontuan izan.
- Ziklo ekonomikoaren aldaketa iragarri dute baina kezkatzeko motiboak baditugu etorkizunari begiratzen badugu. Batetik, zorraren amortizazioak aurrekontuetan izango duen pisua igotzen joango delako hurrengo urteetan (2015rako 800 m. inguru, 2014an baino %48 gehiago). Bestetik, defizita gutxitu beharrenden ondorioz ere gastu publikoa murrizten joango da: gehieneko defizitak %1 2014an, %0,7a 2015ean, %0,2a 2016an. Azkenik, ezin dugu ahaztu pendiente dagoela enplegatu publikoen lansarien murrizketekin amaitzea (agintari politikoaren arabera 2014koa azken urtea izango da murrizketa horiekin) eta horrek gutxienez 120 milioiko kostua du. Arrazoi hauengatik, 2014. urteko aurrekontuak ezezik, hurrengo urtetakoak ere hipotekaturik daude erabat.
- Bestaldetik, Gobernuak 2014 proiektua 2013koarekin alderatu nahi izan du behin eta berriz, azken hori onartu ez ba zen ere. Nabarmendu nahi izan du gastu soziala (osasuna, hezkuntza...) igo egin dela kontzientea delako hori dela exijitzen zaiona. Baina asmo hutsak besterik ez dira hauek praktikara eramaten ez badira. Hiritarrok ikasi dugu politikarien hitzei baino ekintzei erreparatu behar zaiola. Ondo aztertuz gero konturatuko gara funtsean 2014ko aurrekontua 2013ko aurreproiektua bera dela (porrot egin zuena Parlamentuan). Hori bai, diru gehiago dagoenez, oso nabariak ziren jaitsiera batzuk pixka bat zuzendu dira.
- Horrela, sail guztiek gora egiten dute, baina onartutako azken aurrekontuarekin (2012koa) galerak ekartzen ditu proiektu berriak arlo guztietan.
 - Irakurketa ofizialaren arabera gehien igotzen dena Enplegua da (%19,7) bertan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO-PCV) kudeatzen direlako. 384,5 m. erabiliko dira Gemma Zabaletak ezarri zituen irizpideen arabera banatzeko (gogoratzen duzuen prestazioaren %7ko murrizketa gauzatu zuen Zabaletak 2012an). Jakin badakigu partida hori ez dela nahikoa izango, 2012an dagoeneko 414 m. behar zirelako. Larrialdietarako laguntzak, berriz %17,3 igotzen dira (20,3m.)
 - Ingurunea ere gora doa AHT-agatik, batik bat (aurrekontuaren %54a, 350,6 m.)
 - Lehendakaritzan (+%6,5), Berrikuntzarako Fondoa %12,1 igotzen baita (5 milioi gehiago). Guztira 37 m. industriari eta hezkuntzari lotuta.
 - Segurtasunean bizkartzainen partida behera doa: (5 m. eta 2010ean 140 ziren)

	2014	2012rekiko	2013rekiko
Lehendakaritza	102,2	-32,3	6,5
Herri Administrazioa/Justizia	220,5	-4,5	3,5
Garapen ekonomikoa	415,7	-21,7	4,9
Enplegu eta Gizarte politikak	952,7	-11,2	19,7
Ogasun eta finantza	96,9	-8,5	3,4
Hezkuntza	2760,9	-5,6	5,0
Segurtasuna	608,9	-6,8	4,5
Osasuna	3351,6	-1,6	2,7
Ingurunea eta lurralde politika	650,9	-11,9	9,5

Kapituluka aztertzen badugu:

	2014	2012rekiko	2013rekiko
Personal Gastuak	1928,7	-1,6	0,8
Funtzionamendua	3183,0	-0,8	3,9
Gastu finantziariak	283,5	-94,9	14,3
Tranferentziak (gastu arruntak)	3089,5	-5,8	9,9
Inbertsio errealak	1193	-19,5	10,4
Transferen. (kapital eragiketak)	575,1	-27,8	21,9
Finantza-Aktiboen gehikuntza	86,7	-217,2	-25,3

HEZKUNTZAKO GASTUA

- Jaurlaritzak esan du Hezkuntzan 2013ko proiektuarekin alderatuta, %5,2ko igoera dagoela, (130,5 m. gehiago) eta horrek adierazten omen du politika publikoen lehentasuna dela. Diskurtso hori faltsua da oso eta desmontatu behar da. Sinbolikoa bada ere, 2014ko aurrekontuen proiektuan Administrazio orokorreko sekzioen rankingean ere atzera egin du Hezkuntza Sailak. Aurreko gobernuarekin 3. zihuan bitartean, oraingoan 6.a dago, Lehendakaritza, Justizia, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Ogasunaren ondoren. Jaurlaritzak ez du esaten, 2012ko urtearekiko %4,2ko galera datorrela (hau da, 110 milioi gutxiago). Eta 2012tik 2014ra hezkuntza gastuaren galera hori, adierazle objektibo guztietan nabarmentzen da:

-Krisiaren eraginez, aurrekontu orokorrak 2,23 jaitsi den bitartean, hezkuntzakoak 4,15 puntu galdu du. Hau al da lehentasuna izatea?

-Aurrekontu orokorrekiko Hezkuntzako portzentajea ere jaitsi da. Zehazkiago 0,5 puntu (%25,3 izatetik, %24,8 izatera)

-Barne Produktu Gordina irizpidetzat hartuta, 0,16 puntu galdu dira, hau da 104 m. galdu dira bidean.

-Arrazoi guzti horien ondorioz, ikasleko gastuan ere isla izan du, 567 € gutxiago gastatuko direlako 2014an, 2012an baino.

GARAPENA	2012	2013	2014	2012-14
Jaurlaritzaren aurrekontua	-0,9	-10,8	9,6	-2,23
Sailaren aurrekontua	-0,5	-8,9	5,2	-4,15

Aurrekontu orokorrekiko %	2012	2013	2014	2012-14
	25,34	25,91	24,81	-0,53

BPG	2012	2013	2014	2012-14
	4,06	3,74	3,90	-0,16

Gastua ikasleko	2012	2013	2014	2012-14
	7.593	6.796	7.026	-567,00 €

- Hezkuntza Sailaren 2014ko aurrekontu honekin PSEk 2010ean hasitako *bosturteko beltza* osatuko da. PNV-ek PSEk hasitako bideari eusten dio, murrizketa politika berberak garatuz. 2010etik hezkuntza gastuak pisua galduz joan da etengabe. Zehazkiago 2014an 213,1 m. € gutxiago izango dira gastatzeko. BPGan izandako galera 0,4 puntukoa da (241 milioi). OCDEko lurraldeetako 2010eko batz besteko BPGa kontutan hartuta (% 5,4) hezkuntzako gastu publikoan dugun **defizit**

estrukturala (gastatu beharko zena lurralde horiekin parekatzeko) 976 milioikoa da. Aurrekontu orokorrarekiko 0,9 puntu galdu dira eta jaitsiera ikasmila guztietan islatu da: HHn, BHn eta EHUn.

• **Pertsonalگو gastua**

-2013ko aurrekontu proiektuak kontenplazten zituen murrizketa neurri guztiak mantentzen dira: 2010 ezarritako soldaten murrizketak, ITZARRIri egin beharreko ekarpenen etetea (13,2m. desagerturik), borondatezko erretirogatiko sarien desagerpena (25,5m.) plantilen izozketa (gutxiagorekin gehiago egin) eta ordezkapenetan murrizketak..

-2010eko irailetik eroste-ahalmenaren galera (2013ko urrira arte) antzinatasuna, BASEak (EPSV) eta 2012ko Gabonetako soldata kontuan hartu gabe:

Irakaskuntza Publikoa

Maisu/maistra HH-LH	17,6
Maisu/maistra DBH	17,5
LH Irakaslea	18,6
BH irakaslea	18,2
Hezitzailea (Partzuer.)	16,0
Hezkun. Laguntz. Esp.	16

-Ordezkapenetan, 2013rako egin ziren murrizketak mantentzen dira (14,6 milioi gutxiago):

Ordezkapenak	2012-14
HH-LH	-4,9
BH	-4,47
Araubide Bereziak	-46,43
Berritzea	-46,43
Etengabeko Hezkuntza	0
Euskalduntzea	-38,31
GUZTIRA	-18,82

-Plantila organikoa. Hemen aldaketa ia bakarra erretiroena da. Lan-legepekoen kasuan Mendikoi eta antzeko enpresen transferentziaren ondorioz, agian.

	2012	2013	2014	2012-14
Funtzionario irakasle	23.452	23.134	22.884	-568 (-2,4)
Zerbitzuetako Lan-legepekoak	735	850	850	-115 (-15,6)
Hezkuntzako Lan-legepekoak	1.314	1.622	1.646	+332 (25,3)
Erljio irakasleak	302	302	305	+3 (0,9)
GUZTIRA	25.803	25.908	25.685	-118 (-0,5)

-Aurrekontuetako plantilari dagokienez igoera bat eman da (%10,3) bai, besteak beste erlijio irakasleak transferitu zirelako 2012an. Gainera, igoera ez litzateke nahiko izango egon den matrikulazio igoerari aurre egiteko.

IKASLEEN MATRIKULAZIOA	2009-10	2013-14	IGOERA %
HH-2. ZIKLOA	30.765	33.431	8,67
LH	56.456	63.085	11,74
DBH	31.402	34.980	11,39
BA	15.521	15.534	0,08
EMZ	6.591	8.872	34,61
GMZ	8.678	11.825	36,26
GUZTIRA	149.413	167.727	12,26

PLANTILLA	2009-14	IGOERA%
EGITURA	27	5
HH-LH	1.331	15,3

BH	619	6,8
BEREZIAK	43	8,2
LAGUNTZA	-85	-13,9
EPA	-5	-0,8
ZERBITZUAK	193	48,9
IRALE-NOLEGA	2	2,1
GUZTIRA	2.125	10,3

-Ratio aldaketa. Gelako ikasle kopurua ere aldatzen joan da. **2009-10 ikasturtetik 2013-14 ikasturtera** 18.314 ikasle gehiago dago euskal hezkuntza sistema publikoan Haur Hezkuntzako 2. ziklotik batxilerreraino. Teoriaz, denbora-tarte honetan lanpostu asko sortu behar ziren, gutxienez matrikulazioan izan den gorakadari aurre egiteko. Behar ziren lanpostu berri guztiak ez dira sortu, gelako batz besteko ikasle kopurua joan delako igotzen:

Ikasle gelako	Igoera %
HH-2.ZIKLOA	4,44
LH	5,35
DBH	8,25
BA	4,48
EMZ	18,96
GMZ	18,14
Bataz bestekoa	7,06

• Inbertsioak

-2013arekiko: Ikastetxe publikoetara zuzenean doazenak, orokorrean igo da nahiko (%21,3). Lehenasuna ez bada ere, PNV-PSEren paktuaren eraginez, batez ere ekipamendu informatikoan, Eskola 2.0 programaren berpizteko PNV-PSE hitzarmenaren ondorioz %463,3 honela banatuta:

- BERRIZTU planaren bidez LHn 4.700 ekipo berri eta BHn 7.100.

- Eskola 2.0ren bidez, LH 1.513 ekipo berri eta BH 450.

-Ikastetxeen ekipamendua (%71,4) LHko 5. 6. mailako maileguko liburuak berritzeko. (Gogoratu iaz gurasoek egindako presioak)

-Ikastetxe berriak egiteko partidak, berriz behera doaz, (%13,3) eskaintza publikoaren kalitatea kolokan jarriz. Hor ditugu adibideak: barrakoiak edo herriz-herri nahiz auzoz-auzoko desplazamenduak duela urteak agindutako ikastetxeak ez direlako egiten... HH-LHrako %15a eta BHRako %9a jaitsi dira partida hauek.

-2012arekiko:

%26 jaitsi dira kontzeptu guztietan: Ikastetxeen ekipamendua (-%58), ekipamendu informatikoa (-%18) eta ikastetxeetako obrak (-%30). Nabaria da bigarren Hezkuntzako ikastetxeek duten galera: %86ko jaitsiara ekipamendu informatikoan eta % 65a ekipamendu orokorrean (altzariak, liburuak...)

Inbertsioak	2012	2013	2014	2012-14	2013-14
Obrak HH-LH	23,4	17,7	15,0	-36,1	-15,2
Obrak BH	16,8	12,2	11,6	-33,1	-9,0
Ekipamendua HH-LH	4,4	1,6	2,5	-42,4	54,3
Ekipamendua BH	10,1	1,8	3,5	-65,0	92,5
Ekipamendu informatikoa HH-LH	1,4	0,6	9,6	584,6	1312,2
Ekipamendu informatikoa BH	12,1	1,7	1,6	-86,4	-5,1
GUZTIRA	68,2	35,8	43,5	-36,2	21,3

Hemen, inbertsioetako kapituluetakoa ez izan arren (berez, transferentziak edo diru-laguntzak dira) obrekin zer ikusia duten beste partidak sartu behar dira.

Inbertsioak	2012	2013	2014	2012-14	2013-14
Udalei laguntzak obretarako	10,50	6,70	6,00	-42,80	-10,40
Inbertsioak kooperatibetan	2,90	2,40	2,60	-10,30	8,30
Inbertsio Plana EHU	17,00	29,50	22,60	32,9	-23,40
MUSIKENE	?	3,90	11,20		287,20

• Funtzionamendu gastuak

2013an egin duten konfiskazio politikarekin amaitzeko asmoa omen dute eta horretarako funtzionamendu gastuak igo dituzte.

LH /BH IKASTETXEtako GASTUAK	2013	2014	2013-14
Komunikazioak (telef., informa.)	10.974,4	12.428,1	+11,7
Garbiketa (BH)	16.922,3	16.926,5	=
Informatika (zekipoak zaintzea)	4.066,4	4.596,3	+11,5
Elektrizitatea	6.062,7	9.530,7	+36,4
Konpontze eta zaintze gastuak (BH)	1.361,6	3.035,3	+222,9
	39.387,4	46.516,9	+18,1

Funtzionamendurako gastuak, halere ez dira igo 2012tik kontzeptu nagusietan , HH-LHn izandako igoera (%10,8) EHIGerekin sinaturiko hitzarmenaren ondorio baita (Lhko 5. eta 6. mailako testu-liburuak erostea.

FUNTZIONAMENDU GASTUAK	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
HH-LH	20.643	14.908	22.881	53,5	10,8
BH	50.653	38.985	49.828	27,8	-1,6
ARAUBIDE BEREZIAK	3.781	3.215	3.276	1,9	-13,4
GUZTIRA	75.077	57.108	75.985	33,1	1,2

IKASTETXEETAKO GASTUAK	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
Komunikazioak (telef., inform.)	8.402	8.541	9.844	15,3	17,2
Garbiketa (BH)	16.304	16.902	16.927	0	3,8
Informatikako ekipoak zaintzea	3.217	2.532	3.032	19,7	-5,8
Elektrizitatea	6.904	5.272	9.619	82,5	39,3
Testu-liburuak	2.811	2.835	4.600	62,3	63,6

• Transferentziak (diru-laguntzak)

Funtzionamendu gastuak eta pertsonal gastuak 5 urtez murriztuta eta izoztuta mantendu direlako edo, transferentzien portzentajea ez da ia jaitsi 2009tik hona, alderantziz baizik. 2009. urtean aurrekontuaren % 29,4a transferitzen zen eta 2014an, berriz, %30,20. Aipatu behar da transferentzia guztiak ez direla erakunde pribatuetara bideratzen.

PRIBATUA	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
Hezkuntza Itunak	579.21	557,30	562,33	0,9	-2,7
EHU-UPV	432,96	392,96	395,38	0,6	-8,67
Haurreskolak	45,00	40,49	45.000,00	-11,1	0
0-3 Haur Eskola Pribatuak	28,69	21,63	28.690,60	32,6	0
Hezkuntza-Lagun. Espezia. PRI	10,27	10,3	10.367,60	0,6	0,9
Hasierako Lanbi. Presta. Progra.	15,52	12,19	15.180,00	24,4	-2,2
Musikene	9,58	8,2	8.202,90	0	-14,4
IRALEko ordezkapenak PRI	3,00	2,5	2.500,00	0	-16,7

POR PROGRAMAS

Urte hauetan zehar programa gehien finantziarioak behera egin du era nabarmenean. Bitxia da LHn eta BHN beherakadak ikustea ikasle kopuruak gora egin duen bitartean.

PROGRAMAK	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
Hezkuntza Egitura eta Laguntza	34.989	33.843	35.066	3,61	0,22
Haur eta Lehen Hezkuntza	924.819	871.895	905.093	3,81	-2,13
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	947.306	887.518	896.535	1,02	-5,36
Unibertsitateko Irakaskuntza	342.687	301.781	310.888	3,02	-9,28
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	616.200	47.377	62.317	31,53	-89,89
Hezk. Berritza eta Irak. Etengabe Prestak.	47.590	41.406	43.432	4,89	-8,74
Etengabeko Ikask. eta Helduen Hezkuntza	38.515	36.072	36.169	0,27	-6,09
Hezkuntza Sustapena	172.587	119.021	170.942	43,62	-0,95
Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	47.672	41.760	41.995	0,56	-11,91
Ikerketa	39.476	33.161	35.761	7,84	-9,41

Bigarren taulan HH-LH eta BH programak hezkuntzako gastua nola jaten ari diren ikus daiteke. 2012an bien artean %58,3 eramaten zuten. 2014an %75. Hori gertatu da beste programak husten ari direlako.

PROGRAMEN PISUA	2012	2013	2014
<i>Hezkuntza Egitura eta Laguntza</i>	1,09	1,40	1,45
<i>Haur eta Lehen Hezkuntza</i>	28,79	36,12	37,50
<i>Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa</i>	29,49	36,77	37,14
<i>Unibertsitateko Irakaskuntza</i>	10,67	12,50	12,88
<i>Araubide Bereziko Irakaskuntzak</i>	19,19	1,96	2,58
<i>Hezk. Berritza eta Irak. Etengabe Prestak.</i>	1,48	1,72	1,80
<i>Etengabeko Ikask. eta Helduen Hezkuntza</i>	1,20	1,49	1,50
<i>Hezkuntza Sustapena</i>	5,37	4,93	7,08
<i>Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea</i>	1,48	1,73	1,74
<i>Ikerketa</i>	1,23	1,37	1,48
<i>Berriztatzerako fondoa</i>	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	100,00	100,00	105,15

Sustapena

2013ko proiektuarekiko igoera nabarmena dago (%52,6) 2013rako izugarritzko jaitzierak kontenplazten direlako, batez ere beketan (%62 ez unibertsitarioetan eta %67 unibertsitarioetan). 2014an zuzentzen dira beketan izandako murrizketa horiek eta baita Terapia eta hezkuntza eremuko jantokiarena (2013an %31eko murrizketa izan zuen)

2012rekiko: Galera dago, 3 milioi baino gehiagokoa (%2a) krisiaren ondorioak duela bi urte baino lazarriagoak badira ere. Kuantitatiboki galera nagusiak hauek dira: beka ez unibertsitarioetan (1m.), atzerriko hizkuntzak ikasteko beka (0,8 m.), eskola emaitzen beka (desagertu dira), eskola garraioa (bakoitzak 0,7m.) eta elbarruentzako tasak, ingelesa murgiltzea eta guraso elkarteei laguntzak (bakoitzak 0,3m.). Portzentajeei dagokienez ingeleseko partidak dira gehien galdu dutenak (atzerriko hizkuntzak ikasteko beka %49,6; murgiltzea %45,1) eta ondoren eskola garraiorako diru-laguntzak (%29,7) eta gurasoen elkarteei laguntzak nahiz unibertsitateko lankidetzak-bekak (%20 inguru).

SUSTAPENA	2.012	2.013	2.014	2012-14	2013-14
<i>Eskola garraioa eta laguntzaileak</i>	25.718.000	25.000.000	25.000.000	-2,79	0,00
<i>Terapia eta hezkuntza eremuko jantokia</i>	72.498	50.000	72.391	-0,15	44,78
<i>Garraio terapeutikoa</i>	191.315	213.813	191.315	0,00	-10,52
<i>Eskola Jantokiak</i>	33.230.578	34.000.000	34.000.000	2,32	0,00
<i>Ingelesean murgiltzea</i>	700.000	383.800	383.800	-45,17	0,00
<i>Beka ez unibertsitarioak</i>	55.046.000	20.915.000	54.000.000	-1,90	158,19
<i>Laguntzak garraioa beharreizan bereziko.</i>	2.127.000	2.127.000	2.127.000	0,00	0,00
<i>Atzerriko hizkuntzak ikasteko beka BH</i>	1.682.000	802.274	847.038	-49,64	5,58
<i>Guraso Elkartetarako diru-laguntzak</i>	1.224.000	850.000	973.000	-20,51	14,47
<i>Unibertsitate-Bekak</i>	25.392.611	8.262.193	26.327.345	3,68	218,65
<i>Eskola-emaizen beka</i>	705.000	0	0	-100,00	0,00
<i>Eskola garraiorako diru-laguntzak</i>	1.422.000	1.000.000	1.000.000	-29,68	0,00
<i>Unibertsitate beka-Lankidetzak</i>	700.000	560.000	557.200	-20,40	-0,50
<i>ERASMUS beka osagarriak</i>	1.071.200	1.071.200	1.071.200	0,00	0,00
<i>Pertsona elaberrituei tasak eta matrikula</i>	1.680.124	1.660.000	1.300.000	-22,62	-21,69
GUZTIRA	150.962.326	96.895.280	147.850.289	-2,06	52,59

Prestakuntza

Hemen, jaitsiera oso nabarmena izan da. 2012tik 2014ra, sekzioaren aurrekontua %8,7 irakasleen berrikuntzarako, 2013tik %4,9ko igoera izan arren. Baina prestakuntza programetan jaitsiera bi urteetan %38koa da, 2013tik igo bada ere.

Alde batetik murrizketak ditugu:

- Kontsolidatu dute iaz GARATUn burutu zuten murrizketa: -1.475.000 € 2012-13 ikasturtean, 742.000 2013-14 ikasturtean...

-Banakako laguntzen desagerpena

-Pribatuko partida espezifikoen desagerpena: 2013an 140.000€ gutxiago prestakuntzako plan orokorrean (-%73,7); 2014an: erabat desagertzen da; ingelesa ikasteko 2013an 536.000 € gutxiago (-%59,6); 2014an desagertzen da.

-Atzerrian egindako hizkuntza ikastaroak desagertzea (394.677 €)

Bestetik, gobernu berriak programa berriak jarri ditu martxan, 1,7 milioi euroekin: Bake eta Elkarbizitza plana, Eleaniztasunerantz (hizkuntza proiektuak gauzatzeko), Hezkidetzak eta genero indarkeriaren kontrako plan estrategikoa, bikaintasunaren ingurukoa, edota teknologia berriak indartzekoak: Sare(h)ezkuntza, Webgunea (esperientzia piloto baten bidez 40 ikastetxeetan liburu digitalak egingo dira), EKIN izeneko proiektua (16 ikastetxeetan berrikuntza teknologikoa gauzatu da).

Hirueleko markoko proiektuetarako (2014an ebaluatu omen dute) orokorrean 0,5 milioi erabiliko dira (2012an baino %35 gutxiago).

PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
Prestakuntza Planaren gastuak	589.343	484.509	300.000	-38,1	-49,1
Berrikuntza Proiektuak ikastetxe publikoetan	684.998	657.050	434.000	-33,9	-36,6
HMH ikastetxe publikoetan	179.200	164.320	84.000	-48,9	-53,1
Prestakuntza Plana	790.000	390.000	290.000	-25,6	-63,3
Hizkuntzen prestakuntza plana	1.400.000	140.500	0	-100,0	-100,0
Pretakuntzarako poltsak	140.000	50.500	0	-100,0	-100,0
Elkarbizitzarako Behatokia	95.000	25.000	25.000	0,0	-73,7
Ikastetxe pribatueta proiektuak	230.300	93.020	154.880	66,5	-32,7
Prestakuntza Plana-PRI	190.000	50.000	0	-100,0	-100,0
HMH ikastetxe pribatueta	731.989	337.312	499.234	48,0	-31,8
Hizkuntzak ikasteko plana itunpeko sarean	766.000	230.000	0	-100,0	-100,0
Ijito ikaslentzako jardura proiektuak	435.890	290.593	260.000	-10,5	-40,4
Eleaniztasunerantz			207.600		
Aniztasunean elkarrekin			117.000		
Sare(h)ezkuntza			75.000		
Oinarrizko konpetentziak			20.000		
Bikaitasunerantz			100.000		
Eleaniztasunerantz-Dirulaguntzak			728.749		
Aniztasunean elkarrekin-Dirulaguntzak			263.000		
Sare(h)ezkuntza-Dirulaguntzak			75.000		
EKIN proiektuak			185.000		
GUZTIRA	6.232.720	2.912.804	3.818.463	31,1	-38,7

HEZKUNTZA BERRITZEA/IRAKASLEAK PRESTATZEA	47.590	41.406	43.433	4,9	-8,7
--------------------------------------------------	---------------	---------------	---------------	------------	-------------

Euskalduntzea

Hemen ere etengabeko jaitsiera dago. 2014an %0,8koa bada ere, bi urteetan %36,5koa izan da. IRALERen birmoldaketaren ondorioz gero eta liberazio gutxiago eskaintzen dira publikoan eta pribatuan, batzuetan eskaintza eskasagatik. Normalizazio proiektuak ikastetxe pribatueta erdira jaitsi dira bi urteetan eta oso kezagarria da NOLEGA programak izan duen beherakada: %35koa.

EUSKALDUNTZEA	2012	2013	2014	2013-14	2012-14
Ordezkapenak PUB	24.316.000	15.000.000	15.000.000	-38,3	-38,3
EIMA I	745.500	464.750	460.000	-1,0	-38,3
EIMA 2.0	225.000	162.500	200.000	23,1	-11,1
EIMA IV	255.000	119.915	113.000	-5,8	-55,7
IRALEko ordezpapenak PRI	3.001.400	2.500.000	2.500.000	0,0	-16,7
Euskaltegiei dirulaguntzak	1.155.000	800.000	800.000	0,0	-30,7
Euskal Idazleen Elkartea	120.000	78.000	88.000	12,8	-26,7
NOLEGA	234.000	150.000	150.000	0,0	-35,9
Normalizazio Proiektuak PRI	1.600.000	1.000.000	800.000	-20,0	-50,0
Euskal Klusterra	58.000	45.200	60.000	32,7	3,4
EHIK	40.400	41.200	36.000	-12,6	-10,9
Kultur Gizarteko Bidaia	37.600	41.200	36.000	-12,6	-4,3
Mintzola	9.085	10.014	5.657	-43,5	-37,7
HIZPRO	285.000	40.000	160.000	300,0	-43,9
Ulibarri	15.000	45.000	50.000	11,1	233,3
GUZTIA	31.651.900	20.275.165	20.111.000	-0,8	-36,5

Unibertsitatea

Oso kezagarria da izan duen murrizketa Unibertsitateko Plana ez delako bermatuko. Ildo nagusia da

azpiegiturak moteldu beharko direla izugarri murriztu delako aurreikusita zegoena. Bitxia da aldi berean ikustea unibertsitate pribatuek igoera izan dutela bere finantziazioan 2012tik (%34ko igoera,4,4 milioi gehiago) EHUk %10 jaitsiera izan duen bitartean partida nagusietan.

UNIBERTSITATEA	2012	2013	2.014	2013-14	2012-14
EHU-UPV					
Gizarte Kontseilua	350.000	215.402	215.402	0,0	-38,5
Ekarpen arrunta	256.831.708	238.446.000	250.411.354	5,0	-2,5
Programa-kontratuak	7.660.947	6.776.790	8.169.695	20,6	6,6
Osagarriak	16.206.389	16.143.389	15.888.389	-1,6	-2,0
Azpiegituretarako, arrunta	10.000.000	3.000.000	3.000.000	0,0	-70,0
Azpiegituren programa	17.000.000	7.971.469	6.000.000	-24,7	-64,7
Programa-kontratuak	23.507.369	18.613.106	13.675.821	-26,5	-41,8
GUZTIRA EHU-UPV	331.556.413	291.166.156	297.360.661	2,1	-10,3
DEUSTO					
Programa-kontratuak-Uniberts. Plana	1.821.971	1.854.209	2.621.014	41,4	43,9
Programa-kontratuak-Ikerketa	2.663.525	2.729.282	3.405.500	24,8	27,9
GUZTIRA	4.485.496	4.583.491	6.026.514	31,5	34,4
MONDRAGON					
Programa-kontratuak-Uniberts. Plana	1.962.182	1.972.825	2.691.615	36,4	37,2
Programa-kontratuak-Ikerketa	2.001.822	2.224.675	2.607.192	17,2	30,2
GUZTIRA	3.964.004	4.197.500	5.298.807	26,2	33,7
GUZTIA OSOA	336.041.930	295.749.668	303.387.196	2,6	-9,7

Pribatua

Hemen ez dago aldaketa handirik. %4ko galera ematen da, publikako HH-LH eta BHkoa baino baxuagoa. 2012tik Hezkuntza itunetan ematen den igoera naturala da. Kezkagarria hainbat partiden desagerpena (Jubilazioetarako, Krisipeko Ikastetxeak, prestakuntza) ondorio laboral larriak dituztelako. Euskalduntzea ere asko gutxitu da.

IRAKASKUNTZA PRIBATUA	2.012	2013	2014	2013-14	2012-14
HEZKUNTZ ITUNAK	579.214.100	557.300.000	563.114.326	1,0	-2,8
JUBILAZIOAK	2.078.710	1.889.420	1.400.000	-25,9	-32,7
FINANCIACIÓN CICLO 0-3	28.690.650	21.636.178	28.690.650	32,6	0,0
ESPECIALISTAS DE APOYO EDUCATIVO	10.278.332	10.304.106	10.367.637	0,6	0,9
SUSTITUCIONES DE IRALE	3.001.400	2.500.000	2.500.000	0,0	-16,7
NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA	1.600.000	1.200.000	1.000.000	-16,7	-37,5
LIBERADOS SINDICALES	871.099	934.020	994.440	6,5	14,2
CENTROS EN CRISIS	369.805	0	0	0,0	-100,0
SUBV. COMPLEMENTARIA (PVFP)	1.786.069	1.902.018	1.754.355	-7,8	-1,8
INGLES CGM PRI	450.000	146.250	146.250	0,0	-67,5
SUB. EQUIPAMIENTO CENTROS DE FP	2.078.400	690.000	776.314	12,5	-62,6
SUB. OBRAS CENTROS FP	220.000	0	0	0,0	-100,0
CICLOS FORMATIVOS OFERTA PARCIAL PRI	930.000	687.982	0	-100,0	-100,0
PROYECTOS EUROPEOS	734.000	850.382	0	-100,0	-100,0
PLAN FORMACIÓN PROFESORADO PRI	190.000	50.000	0	-100,0	-100,0
PROYECTOS FORMACIÓN-INNOVAC.	230.300	93.020	154.880	66,5	-32,7
FORMACIÓN PROFESORES RED PRIVADA	163.221	103.971	0	-100,0	-100,0
APOYO ALUMN. INMIGRANTE	2.255.000	1.700.000	1.700.000	0,0	-24,6
SUB. INVERSIÓN EN COOPERATIVAS	2.981.242	2.409.635	2.606.662	8,2	-12,6
CONSORCIO FP DE ALAVA	661.365	300.000	300.000	0,0	-54,6
MARCO ENSEÑANZA TRILINGÜE	569.589	337.312	499.234	48,0	-12,4
PLAN DE FORMACIÓN DE IDIOMAS	766.000	230.000	0	-100,0	-100,0
INTERCAMBIOS ESCOLARES AYUDAS	30.000	0	0	0,0	-100,0
EQUIPOS INFORMATICOS ESO	1.170.000	0	0	0,0	-100,0
BARRERAS ARQUITECTÓNICAS	200.000	250.000	250.000	1,0	25,0
SUBVENCIÓN COOPERATIVAS	2.981.242	2.409.635	2.606.662	8,2	-12,6
FORMACIÓN EN ALTERNANCIA PRI	0	0	183.000	0,0	100,0
PROYECTOS INNOVACIÓN/EMPRENDIMIENTO	0	0	770.000	0,0	100,0
GAUEKO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNAK	400.000	0	0	1,0	-100,0
AICerekin HITZARMENA	75.000	50.000	0	2,0	-100,0
IKASGINTZArekin HITZARMENA	75.000	50.000	0	3,0	-100,0
CONVENIO HETEL	138.490	138.490	138.490	4,0	0,0
CONVENIO LANEKI	60.000	100.000	100.000	5,0	66,7
FEVAS	12.000	12.000	0	6,0	-100,0
IKASLAN-GIPUZKOA	195.339	195.339	195.339	4,0	0,0
GUZTIRA	644.500.524	607.923.929	618.861.410	1,8	-4,0

Aniztasuna

BIDELAGUN programak PROA ordezkaturako du %64ko igoserarekin. (205 irakasle, 2013an 60). Kulturartekotasunaren esparruan publikoan errefortzu gehiago dago (113 irakasle, 2013an 44; eta 6 koordinatzaile, 2013an 3).

ERKIDEGOKO 2014 UTERKO AURREKONTUA HEZKUNTZARAKO: EZ DIEZAGUTELA ,ADARRIK JO!

Eusko Jaurlaritzak 2014. urterako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailerako aurkeztu duen aurrekontu proiektuak, 2010an hasitako aurrekontuek birmoldaketak ezarritako Hezkuntzaren inguruko gastu publikoaren murrizketa kontsolidatzen du. PNVec, aurreko gobernuak eginiko murrizketak behin eta berriz kritikatu zituen arren oposizioan zegoela, neurri murriztzaile hauei jarraipena ematen die.

Ezin dugu jakin benetan ea 2013. urteko aurrekontuekin alderatuz 130 milioiko igoera dagoen. Ziur esan dezakeguna da 2012an onartutako azken aurrekontuarekin alderatuz %4,2ko jaitsiera dagoela, beharrezkoa litzatekeena baino 120 miloi euro gutxiago. Eta hezkuntzarako ematen den gastu publikoaren murrizketa hau edozein adierazle objetibotan antzeman daiteke. 2012-2014 binomio honetan, hezkuntzari dagokion aurrekontua aurrekontu orokorra baino gehiago jaitsi da (%4,2 hezkuntzan eta 2,2% orokorrean), aurrekontu orokorrarekiko duen pisua ere jaitsi da (%25,3tik %24,8ra), BPGri dagokionez berdin (%4,1etik %3,9ra), eta baita ikasleko gastuan ere (7.593etik 7.026 eurotara).

Egia da 2013ko aurrekontuekin alderatuz hobekuntza partzialak badirela, eskoletako funtzionamendu gastuei eta bekeei dagokienak hain zuzen ere (azken hauetan.2012ko mailetara iristen ez bada ere). Hala ere, balantze orokorra oso ezezkorra da. 2012 urtekoa erreferentzia izanda, ekipamendua jaisten da (%58), birgaitze lanak eta ikastetxe berrien eraikuntza (%30), eskola garraioa (%29), prestakuntza programak (%38), euskalduntzea (%36), EHUren azpiegituretarako (%64)...Honetaz gain, ez da diskriminazio positiborik egiten azken urteetan aurrekontuetatik kalteturik ateratzen den eskola publikorako, eta ez da bermatzen Unibertsitate Plan betetzea.

Proiektu honek, gainera, ontzat ematen ditu langile publikoen lan baldintzetan eginiko murrizketa guztiak (5 urtez murriztutako soldatak, erretiro sariak, ezgaitasun iragankorraren osagarria...). Modu berean, a ikasle kopurua handitzen doan arren plantiletan ez da inolako hazkunderik ematen. Azken honek, gelako ikasle kopurua 7,15ean igotzea ekarri du 2009-10 ikasturtetik. Azkenik, ordezkapen falta pairatzen jarraituko dugu eskoletan, horretara zuzendutako partida ere jaitsi egiten baita (%4,9 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta %4,5 bigarren hezkuntza).

Gobernuak ahalegin handiak egin ditu gastu publikoa kudeatzeko orduan Hezkuntza lehenetsun bat dela sinetsi arazteko. Horretarako lotsagabe jokatu du, eta egungo proiektua onartu gabeko proiektu batekin alderatzera iritsi da. Ahalegin horrek aldiz, ez du aurrekontuan islarik izan. Horretarako, beste urte bete itxaron beharko dugu.

2013ko abenduak 11